

Izatezko bikoteen Nafarroako foru legearen aurka jarritako errekurtsioa salatu du EHGAMEk

■ Baita UPN alderdiko diputatuek homosexualitateaz esandakoak ere

Erredakzioa / Iruñea

IZATEZKO bikoteen Nafarroako foru legearen aurka jarritako errekurtsioagatik eta, halaber, UPNko diputatuek homosexualitateaz emandako iritziak direla eta, salaketa oharra kaleratu zuen atzo EHGA Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak.

Mundu osoko gay, lesbiana, transexual eta bixesualak «ahalegin handiz» lortzen ari diren eskubideen kontrako «atentatu berritza» dela salatu du EHGAMEk. «Gauzak horrela, legearen eta eskubide zibilen aldetik atzerapauso nabarmenak ematen ari dira; hots, sexu bereko bikoteen eskubidei buruzko eztabaida geldiaraztea Espainiako Kongresuan», esan dute EHGAMEkoek. Horren guztiaren atzean, Vatikanoa eta Opus Dei direla gaineratu zuten.

Bestalde, UPNko diputatuek adierazi zuten bikote homosexualen umeen heziketan lagundu baino gehiago kalte handia sortzen dutela, eta «eraso homofobikoei» atak zabaltzen zaizkiela.

«Gizartearen desagerpenari buruz UPNko diputatuek erakutsi duten *sensibilitateak* harridura eta barrea eragin digu», esan zuten EHGAMEkoek. Bikote homosexualen seme-alaben heziketa gaintzeko umeena baino zailagoa dela esateko frogarik ez dagoela uste dute.

IU-EB ere, haserre

IU-EBk ere esan du legearen helburua ez zela bikoteak ezkontzea. «Horrelako interpretazioak egiteak xede bakarra du: familia eredu bat mantentzea, nafarrek pluraltasunaren alde egin dutenean», salatu dute. UPNk «ustez» umeen eskubideak babesteko asmoz hartutako erabaki hori alderdi horrek gazteei zigorrak gogortzeko onartutako legearekin bat ez datorrela esan du IU-EBk.